



ZEURE UDALAK INFORMATZEN
www.laudiokoudala.net
www.ayuntamientodellodio.net

ZUIN

Laudio  Llodio
LAUDIOKO IBAR NORLEAREN UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LAUDIO/LLODIO

2. hamabostaldia. Maiatza 2012 448 Zk. Ale kopurua: 8.000

Emakume ekintzaileei buruzko foruma, elikadura subirotasunari buruzko hitzaldia eta homofobiaren eguna izango dira Berdintasun Zerbitzuaren ardatz hurrengo egunetan

HAN ETA HEMENGO EMAKUME EKINTZAILEAK foruma
Maiatzak 22, asteartea, 18:30etan
Kultura Etxean

Berdintasun Zerbitzuak, Laudioko Udaleko Garapen Agentziarekin laguntzaz, Emakunde 2012rako antolatutako Berdintasun foroaren testuinguruan ekintza berri bat martxan jarriko du, Pertsona Ekintzailearen eguna dela eta. Aurtengo ekintzen gai bera izango dute: enpresaren testuinguru ekonomikoan berdintasuna bultzatzen duten emakume enpresarien esperientziak.

Testuinguru ekonomiko eta sozial global eta konplexu bateko emakume ekintzaileen esperientzien trukatzeko oinarrituko da ekimena, beti ere Arabako, Laudioko eta nazioarteko emakumeen enpresa ekimen desberdinak internet eta bideo konferentziaren bitartez ezagutzeko.

Emakume ekintzaileen arteko esperientzia trukatzeko du oinarri, bata eta besteen oztopoak, babesak eta puntu positiboak ezagutze aldera eta enpresa aurrera ateratzeko segi beharreko pausuak zeintzuk diren apuntatzeko.

Hautzaindegi zerbitzua eskainiko da, beti ere hiru egun lehenago 94 403 48 50 telefonora abisatuta.

"EMAKUMEAK, ELIKADURA-SUBIRANOTASUNAREN PROTAGONISTAK. KUBATARREN ETA EUSKALDUNEN BIZIPENAK" erakusketa Kultura Etxean, maiatzaren 21etik ekainaren 1era, astelehenetik ostiralera 18:00etara 21:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara

Euskadi-Cuba elkarteak eta EHNE-Bizkaia sindikatuak elkarlanean egindako kanpainaren parte da Emakumeak, elikadura-subiranotasunaren protagonistak. Kubatarren eta euskaldunen bizipenak erakusketa. Haren bidez, justizian eta berdintasunean oinarritutako elikadura-subiranotasunaren aldeko apustuarekin bat egin du Euskadi-Cuba elkarteak; izan ere, elikadura-subiranotasuna ezin izango baita gauzatu harik eta emakumezkoak protagonistat hartu arte.

Elikadura-subiranotasuna deritzo, hain zuzen, herritar guztien elikatze-eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren elikagaiak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko politika nahiz estrategia propio eta iraunkorrak definitzeko herriek duten eskubideari. Ekoizle txikiak eta ertainak ardatz dituen sistema horren bidez, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako produktuak ekoizteko, produktu horiek merkatura-

tzeko eta landa-eremuak kudeatzeko nekazarien, arrantzaleen nahiz indigenen ohitura-aniztasunak eta kulturak errespetatuko dira, emakumeek funtsezko eginkizuna izango dutelarik horietan guztietan.

Hainbat emakumek eta erakundeek -hala Nekazari txikien Elkarte Nazionalak (ANAPek) nola EHNE Bizkaiak (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak)- Kuban zein Euskal Herrian egindako lana bildu dute Josu Truebaren eta Pau Collen argazki dokumentalek. Bi elkarte horiek, bidenabar, La Via Campesina nazioarteko nekazaritza mugimenduko kide dira.

Maiatzak 17, homofobiaren aurkako nazioarteko eguna

Laudioko Udalak konpromiso sendoa hartu du, jasanberagoa den gizarte baten alde aldaketa indartu nahian.

Horretarako, gay eta lesbianen ikur den oztadar-bandera jarrito da Udalatxeko balkoian maiatzaren 17an. Eta Albert Nobbs filma luzatuko da maiatzaren 19an LHUlan. Glenn Close andreak protagonizatzen duen film honetan gizonez jantzi behar duen XIX. Mendeko andra baten gora beherak kontatzen dira. Jankera horrek bere baitan nolabaiteko ezin egona eragingo dio eta horixe izango da filmaren muina.

Berdintasun arloak antolatutako azken tailerretan oraindik plazak libre

Laudioko Udaleko Berdintasun arloak antsietatea eta estresa maneiatzeko eta emakumeen autozaintetarako tailerrek oraindik ere plazak libreak dituztela jakinarazi nahi du. Antsietatea eta estresa maneiatzeko tailerrek zazpi sesio izango ditu, maiatzaren 17an hasita eta hurrengo egunetan: maiatzaren 24, 29 eta 31 eta ekainak 7, 14 eta 21 17:30etatik 19:30etara Kultura Etxean. Plaza kopuru mugatua. Izen emateak maiatzaren 7tik aurrera 94 403 48 50 telefonon. Matrikula zabalik, bertan erroldatutako emakumeentzako hiru euro eta gainontzekoentzat 5 euro.

Emakumeen autozaintetarako tailerra berriz, asteazkeno, izango da, maiatzaren 16an hastekoa, 18:00etatik 20:00etara Balio anitzeko aretoan. Plaza kopuru mugatua. Informazio gehiago eta izena emateko 94 403 4850 telefonon. Bertan erroldatutako emakumeentzako hiru euro eta gainontzekoentzat 5 euro.



MAIATZEKO AGENDA

Hilak 18:

- 19:30 Yogari buruzko hitzaldia Satya Eskolan.

Hilak 1:

- Audio Ikastolaren ikastaro bukaerako jaia

Hilak 19 eta 26:

- 17:30 eta 20:00 Audio Top Zinema LHULan.

Hilak 23:

- 18:00 Gasa zundatzeko frackin sistemari buruzko hitzaldia Kultura Etxeko 5. aretoan

Hilak 26:

- 17:00 Bandaren kontzertu didaktikoa Lamuzako parrokiari



Hilak 27:

- 18:30 Baisala arratsaldea Antzokian

IKUS 1. ORRIA:

- Berdintasun zerbitzuaren ekimenak

IKUS 2. ORRIA:

- Andaluzia etxearen aste kulturala
- Caritasen ekintzak
- Solastiarren hitzaldiak

IKUS 3. ORRIA:

- Euskara arloaren ekintzak
- Drumgorri hitzorduak

IKUS 4. ORRIA:

- Gazteleku hitzorduak

ETA GOGOAN IZAN...
www.laudiokoudala.net
web gunean are informazio gehiago

Laudioko Institutuko seigarren promozioko bazkaria: Batxilergoa (74-75)-UBI (75-76)

74, 75 eta 76. urteetan euren batxilergoko ikasketak burutu zituzten ikasleek ekainaren 9an, eguerdiko 12:30an bilduko dira institutuaren atariaren aurrean. Bildu eta berehala oroitzen goxoak tartekatzeko asmoz zizki mizki bat hartu eta Karrika jatetxerantz abiatuko dira, bertan 14:30etan bazkari gozo bat dastatzeko asmoz. Hitzordu honekin bat egin nahi dutenek 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko kuxako 3035 0045 21 045.1.15755.1 kontu korrontean, euren izen abizenak aipatuta eta maiatzaren 30^a baino lehen. Kontsultak egiteko emaila: mjcarrov@gmail.com. Antolatzaileek, garai hartako edo ikasbidaia argazkiak eraman daitezela eskatu nahi die parte hartzaileei (edo beste aipatutako emailera pasa).

Andaluzia Etxeak antolatutako 9. Aste Kulturala martxan

2012ko maiatzak 26, larunbata

11:00etan:

- Gurutze- puntuz egindako koadroen eta Andaluzia Etxeko bazkideek egindako eskulanen erakusketaren inagurazioa.
- Igel jokoaren txapelketa.
- Haurrentzako jolas eta ikuskizunak, besteak beste "SHOW MAGIA"
- Adin guztientzako lehiaketa gastronomikoa: Gazpatxoa, untxia, tortilla, kaki librea eta gozokiak.

13:00etan: Elkarteko atarian benentziadorea eta urdaiazpi-

ko dastatzea.

14:30etan: Epaimahaikideen erabakiaren ostean, anaitasun bazkari batean lehiaketa gastronomikoko jakiak dastatuko dira.

19:00etan:

- Rosi irakaslearen eta bere ikasleen areto dantzen emanaldia.
 - "Algazara" abesbatzaren emanaldia
 - "ALGARABIA" dantza taldeen emanaldia.
- 20:00etan:** Talde errozieroaren emanaldia

2012ko maiatzak 27, igandea

12:00etan: Meza errozieroa Untzuetan plazan, "Algazara" abesbatzarekin eta jarraian Rocio Ama Birjinaren prozesioa, andaluziar zaldi eta idiek eramandako gurditxoan.

13:30etan. Presidente andereak eta agintariak hitza hartuko dute.

13:45tan: Gastronomía lehiaketako sari ematea.

14,10etan. "Algarabía" dantza taldearen emanaldia.

14:20etan: Bazkide eta gonbidatuentzako otamena

17:00etan. txokolatea eta bizkotxoak denontzat eta jai amaiera.

Caritasek enplegu zerbitzua eskainiko du etxeko lanak egiteko norbaiten beharra duten pertsonentzako

Caritasek etxeko lanak egiteko, senideren bat zaindu edo orduko lana betetzeko norbaiten beharra duten pertsonen enplegu zerbitzua

bat duela jakinarazi nahi die.

Informazio gehiagorako deitu 688.667.948 edo 946 72 17 97 telefonoetara edo jo astelehen, as-

tearte, asteazken era ostiraletan, 10:30etatik 13:30etara Alberto Acero kaleko bigarreneko lehen solairuko bulegoetara.

Caritasek 8-14 urte bitarteko haurren frakak behar ditu

Laudioko parrokiako Caritasek herritar guztiak, aterpea behar eta elkarteko jantzi zerbitzura jotzen duten pertsonen beharrak asetzearren egindako deialdiari hain azkar erantzuteagatik eskerak eman nahi dizkie.

Bestetik, 8 eta 14 urte bitarteko haurren frakak behar dituela adierazi nahi du elkartek. Hori dela eta, deialdiarekin bat egin nahi dutenek eskatutako Elorza maisuaren kaleko 5. zenbakiko beheko solairura

hurbildu bitez, astelehen, astearte eta ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara, edo bestela eskatutako frakak 24 orduko zerbitzua ematen duen edukiontzian utzi ditzatela.

2012ko Santa Luzia

Maiatzak 28, astelehena

11:30etan Meza
 12:00etan Lotso taldearekin erromeria
 16:00etan Potxin eta patxin pailazioen "Ohitura onak" hau-

rrantzako emanaldia

19:00etan Ekin joleak taldearekin kalejira Laudion

Autobus zerbitzua 2 microbusa: 14 plaza

Maiatzaren 28an hurrengo orduetan 9:00etan, 14:00etan, 15:00etan eta 18:00etan
GELTOKIA: ALDAIKO PLAZAKO PARKINGA

Berdintasunaren inguruko hitzaldiak Solastiar, Avillo eta Jakarandaren eskutik

Emakumeen sustapenerako Solastiar kultur elkartek, Avillo eta Jakaranda elkarten laguntzarekin hurrengo hitzaldi hauek eskainiko ditu Kultura Etxean arratsaldeko 16:30etatik aurrera, aipatutako egunetan (sarrera libre

eta doakoa):

Maiatzak 16, asteazkena: "Emakumeen jabetasuna". Hizlari asko.

Maiatzak 22, asteartea: "Emozioen tiranotasuna: depresioaren ezinegona". Marian Urre-

txuren eskutik.

Maiatzak 23, asteazkena: "Gizon eta emakumeen aukera berdintasunaren hitz gakoak". Hizlari asko.

GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"

LAMUZA 13 KALEA

infogazte@audiokoudala.net

ORDUTEGIA: Astelehen, asteazken eta ostiraletan

16:30etatik 19:30etara

Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia



Apillen fidelitate sariak

Apillek TCA txartela gehien erabili duten hiru emakumeri fidelitate sariak eskaini die eta opari gisa, Apillen edozein dendetan trukatzeko 100 euroz kargatutako erosketa-baleak luzatu dizkie M^a Dolores González de la Riva, Teresa Cosano Martín eta Maribel Matamoros Urrestarazu laudioarrei.

Horrez gain, Amaren eguna dela eta, amatxoentzako euren opariak Apillekin bat egindako dendetan erosi zuten guztien artean honako sari hauek zozketatu zituen:

- Urduñako bainuetxerako bono opari bana Loli Rueda Mielgo eta Maria Concepción Urrutzi Ortizentzat

- Elkartearekin bat egindako edozein dendetan trukatzeko erosketa bale bana Nerea Montalbán, Madalena Iglesias eta M^a Asunción Rodríguez Gutierrezentzat.

Baisalak maiatzaren 27ko Milonga batean murgiltzera gonbidatzen zaituzte

Areto dantzen Baisala elkarteak, maiatzaren 27an, igandea, arratsaldeko 18:30etatik gaueko 22:00etara bitartean eta audioar Kafe Antzokian antolatuko den Milonga gategan parte hartzea gonbidatu nahi ditu dantza zale guztiak. Bertan milonga osatzen duten modalitate guztiak dantzatzeko aukera izango dute bertarartzen direnek: valsecitoak, milongak, tangoak, etab. Hurbil zaitez eta gozatu dantza eta gainontzeko dantzazaleek proposatutako gau dibertigarri honetara!

Maiatzaren 26an, familia guztiarentzako kontzertu didaktikoa Laudioko Musika bandaren eskutik

Entzumen adikorra garatzeko eta musikaren ezagutza eta gustua sustatzeko xedearekin, Laudioko Musika bandak familia guztiarentzako kontzertu didaktikoa eskainiko du maiatzaren 26an, zapatua, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Lamuzako Kepa Deuna parrokiaren. Narratzaile elebidun batek eta ikus entzuneko proiektio bategen musika klasiko ipuin musikalki ezagunenak eskainiko dituzte hitzordu ludiko-didaktiko honetan. Sarrera libre eta doakoa.

San Roke jaietako kartel lehiaketa

2012ko San Roke jaiak iragartzeko kartela hautatzeko lehiaketan originalak aurkezteko epea maiatzaren 25ean, eguerdiko 13:00etan bukatuko da. Informazio gehiagorako www.audio-koudala.net.

2012ko Internet Eguna hilaren 19an Laudion

SPRIK maiatzaren 19an, zapatua, Internet Eguna ospatzeko gure udalerrira aukeratu du. Aldai plazan GPS bidezko eta geocaching bitarteko bilaketa zenbait joko izango dira eta antolatzaileek topagune berezi hau "Lludio caching" deitzea erabaki dute. Informazio gehiagorako aurreko eguneko prentsa idatzian eta irratietan.

Euskara Bekak 2012

Berebiziko ahalegina egiten du urtero-urtero Laudio Udaleren Euskara Arloak, dirua oztopo bat izan ez dadin euskara ikasteko orduan. Aurten ere, onartu berri dira euskara ikasteko laguntzak, 43.300 euroko aurrekontuarekin. Ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Ikasle guztiak dute diru-laguntza bat eskuratzeko aukera.

- Laudion erroldatutakoentzat, euskaltegi homologatu

batean egindako ikastaroak baldin badira eta asistentzia eskola orduen %85etik gorakoa bada.

- 2011/12 ikasturterako, 2012ko udako ikastaroetarako eta 2012ko aitalamamentzako ikastaro berezietarako.

- AURTENGO BERRIKUNTZA: baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50 (edo, eskarera kopuruaren arabera, propor-

tzionalki urritutako kopurua) itzuliko zaie. Ikastaroak iraun duen bitartean, egunen erdian edo gehiagoan langabezia egon direnei %75 (edo, eskarera kopuruaren arabera, proportzionalki urritutako kopurua) itzuliko zaie.

Euskara ikasteko beka deialdia hau Laudio Udaleren ordezkariak duten alderdi politiko guztien aldeko botoz onartu da.

Euskal estola publikoaren jaira joateko autobusak: Zarautzen ekainaren 10ean

Ekainaren 10ean, igandea, Euskal Eskola Publikoaren jaia izango da Zarautzen (Gipuzkoa).

Hara hurbiltzeko hainbat autobus abiatuko da, eskualdeko udal batzuen artean eta Laudioko hainbat ikastetxeren artean antolatutako ekimen bateratuan. Laudiotik joan nahi baduzu ho-

nako hauek dira datuak:

IRTEERA: 09:30ean, "Audio" ("Canciller Ayala" zena) Institutuaren aurreko bus geltokian.

ITZULERA: 19:30ean Zarautzik. **PREZIOA:** 8 euro, adin guztietarako.

BAIMEN BEREZIA: 18 urtetik behar koek, bakarrik doazenean,

gurasoen baimena ekarri behar ko dute.

IZENEMATEAK: Laudio Udaleren Euskara Arloan (goizez, Tf: 944 034 890) eta Fabian Legorburu, Lateorro eta Lamuzak ikastetxetako guraso-elkarteen bitartez. Azken eguna: ekainaren 7a, osteguna.

EUSKARA: ARABARRON ONDAREA "Gerardo Lopez de Gereñu" Lehiaketa

Ez dira gutxi Laudion gaztekeraz hitz eginda, oraindik, normaltasun osoz erabiltzen diren euskarazko hitzak: aranza, sagutxu, putxa, saguzahar, zezpala, ganorabako, hamarretako, kolkoa, halda, tontorra, txarri, giharra... Eta, zer esanik ez, gure herriko toponimian euskarak utzitako ondarea: Etxabari, Landaluze, Ollarte, Goienuri... Edo euskararen inguruko is-

torioak edo...

Horietako batean interesik baduzu, jar zaitez harremanetan Euskara Arloarekin. Zorte eguna duzu gaurko, Arabako Foru Aldundia Euskara Zerbitzuaren bitartez, lehiaketa paregabea antolatutako honen inguruan. Araban bagare...

Gida moduan Gerardo López de Guereñu arabarrak 1958 urtean

argitaratu zuen Voces Alavesas liburua har dezakezu aintzat.

Kontuan izan, bestetik, herriko toponimia ere langai bat dela sariaketa honetan. Erraz baino errazago duzu Euskara Arloak argitaratutako toponimia mapa erabiltzen baduzu.

Gehiago jakin nahi baduzu edo parte hartzeko laguntza behar baduzu, jo Euskara Arlora.

Jarrai musika aktualena Drumgorri aretora hurbilduta

Hiru izango dira Gardea auzoan kokatutako Drumgorri aretoak programatutako hitzorduak, musika zaleek bertatik bertara musika aktualena hurbil hurbiletik segi dezaten. Eta bete behar izango duten taldeak honako honetan zehazten direnak:

- **Maiatzaren 18an**, Ostirala 23:00etan. Dohainik ACTITUD (Madril) + INKUBO (Bilbo)

- **Maiatzaren 19an**, Larunba-



ta 23:00etan. **KONFIRMATZEKE DAGOEN TALDEA**

- **Maiatzaren 26an**, Larunbata 23:00etan. Dohainik **BLUES MORNING SINGERS** (Bilbao)



Natalia Reyesek lan ibilbide onenari Ikaslan saria lortu du

Iragan maiatzaren 3an Laudioko BHIko ikasle Natalia Reyesek, lan heziketako ikasleei luzatutako eta arabar formakuntza ibilbide onena nabarmentzen duen lehen Ikaslan saria lortu zuen. Hiru urte baino gutxiago igaro dira Laudioko BHIan karakterizazio ikasketak bukatu zituela eta jada Tierra de Lobos telesailan buru belarri lanean dabil. Argitarapen honen bitartez Natalia zoriondu nahi dugu ez bakarrik lortutako sariagatik, baita bere ahalegin, esfortzu eta lan onagatik lan heziketak pena merezi duela erakutsi duelako ere.

Arrate Astobiza, junior kategoriako Espainiako klubaren txapelketan enbaxadore laudioarra

Arrate Astobiza Ortueta laudioarra gure herriaren izen ona junior kategoriako klubaren arteko Espainiako txapelketara eramango du, izan ere laudioarrak jokatzeko duen Getxo saski baloia kluba, Zaragozan egingo den txapelketa nazionalaren parte hartzeri deitu izan baitute.



Laudioar guztiok saskibaloia munduan ibilbide emankorra izan dezala desio nahi diogu Arrateri eta lehen urrats honek osasunak, kirolak eta lehiakortasunak ireki diezazkien ate guztiak zabal diezaiela. Aurrera Arrate!

Brontzeko beste bi domina Araba Karate Klubarentzat

Araba Karate Klubak brontzeko bi domina lortu berri ditu Madril burututako Unibertsitate arteko Espainiako txapelketan lehiatu ondoren. Laudioar taldeko Jessica Gordok eta Angel Daza entrenatzaileak betetako lanaren fruitu gozoa izan dira dominak. Zorionak!

Gas zundaketarako fracking metodoari buruzko hitzaldi informatiboa maiatzaren 23an

Datorren eguaztenean, maiatzak 23, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Lamuza parkean kokatutako Kultura Etxeko bosgarren aretoan Araba gas fracking-ari buruzko doako hitzaldi informatiboa eskainiko da. Hitzorduaren arduraduna "Fracking ez Araba" plataforma da, herrialdean fracking metodoaren bitartez gas ez konbentzionalaren zundaketarako lizentziak eman ez daitezen administrazio publikoei eskaera egin dion plataforma. Sarrera libre eta doakoa.

"Ekintzaile XXI" ekimenak hazkunde handiena duen euskal enpresa aurkitu nahi du

Laudioko Udalak Garapen Agentziaren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailak hazkunde gaitasun handiagoko duen euskal enpresa bilatzeko "Ekintzaile XXI" sarirako hautagaitzak aurkeztera gonbidatu nahi ditu bertako enpresei.

Berriki sortu diren eta hazkunde gaitasun handiena duen enpresa berritzaileen ahalegina eta talentua saritu nahi du. Sariak bi kategoriatan izango ditu: emprendesXXI -0 eta 2 urte bitarteko enpresa kimuak- eta emprendesXXI -2 eta 7 urte bitarteko hazkunde handiena duten en-

presak. EmprendesXXI sarirako hautagaitzak maiatzaren 9ra arte aurkeztu beharko dira eta emprendesXXIkoak maiatzaren 30era arte. Ekimen hau "ekintzailearen eguna" dela eta sortutako lehia da. Informazio gehiagorako: 944034980 Laudio Udala Garapen Agentzia.

Aiaraldeko kimu berriak kluba

Laudioko Garapen Agentziak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara eta Amurrio Bidean-en laguntzarekin, Aiaraldeko enpresen kimu berriak kluba martxan jarri du. Pertsona ekintzaileen hasiera bateko behar komunak argitze aldera sortutako proiektu honek enpresa berrientzako topagune izan

nahi du, bertan lehen urratsen ondorioz sortutako ezagutzak eta esperientziak tartekatuzko helburua du. Maiatzaren 30ean, goizeko 10:00etan eta Laudioko Garapen agentzian Aiaraldeko Kimu Berriak egitasmoaren aurkezpen ofiziala egingo da eta arratsaldeko 19:30etan Amurrioko Enpresal-

an erdarazko "Consejos prácticos para personas emprendedoras y empresas" hitzaldi-ponentzia luzatuko du Eduardo Sanz Muzasek. Bertan izan edo informazio gehiago beharko bazenu jar zaitez harremanetan Garapen agentziarekin 944034980 telefonoan edo garapenagentzia@laudiokoudala.net helbide elektronikoan.

Laudio Ikastolak ikasturte amaierako jaia ospatuko du maiatzaren 19an

Laudio Ikastolako ikasle, guraso eta langileak biltzen dituen ikasturte amaierako jaia ospatuko dute maiatzaren 19an. Egitarauaren ardatzak Batxilergo etapa amaitzen duten ikasleen, 1996an bertan 2 urteko mailan

eskolatzen hasitako ikasleen agurra, eta Ikastolako guraso, ikasle eta langileei irekitako bazkaria izango dira. Eguneko programak mendi mar-txa, hockey, pilota eta futbito partidak, gazteentzako grafiti

tailerra, haurrentzako puzgarri, jolas eta ikuskizunak, trikitalarien giroketa eta euskal dantza saioak ere eskainiko ditu. Herri bazkariaren ostean dantza plaza saioa antolatuko dute jaiari amaiera emateko.

Gaztelekuak Errege Koparen pasioarekin bat egingo du

Ugarte auzoan kokatutako Gaztelekuak ere Madrilan maiatzaren 25ean Athleticek jokatu duen finalari keinu berezia egingo dio. Maiatzaren bigarren hamabostaldirako antolatutako ekintzetako batean, zuri-gorritz jantzitako pa-

parreko- andrakilak egiteko aukera izango dute bertaratzeko direnek. Baina eskaintza ez da horretarako bakarrik mugatuko. Hauxe izango duzue gozagai bertan aipatutako egunetan eta 18:30etatik aurrera, erabat doan gainera!!!

Maiatzak 18: Drogomenpekotasunari buruzko tailerra
Maiatzak 19: Papparreko Athleticeko andrakilak
Maiatzak 25: Sexualitateari buruzko tailerra
Maiatzak 26: Karaokea


Intocable, bitxi preziatua Laudio Top Zinemara heldu da



XIX. menderako propio ez den arropaz jantzitako eta Oscar saria lortu duen Glenn Close handiaren antzezlan nabarientako bat eta frantziar zinemagintzak emandako bitxirik azpimarragarriena izango dira Laudio Top Zinema ekimenak zinemazaleen nahia asetzera antolatutako zine emanaldiak. Aukeratu zurea, edo bietara hurbildu eta gozatu zine onenaz oso diru gutxiaren truke.

Maiatzak 19: 17:30etan eta 20:00etan LHUIan ALBERT NOBBS (2€)

Maiatzak 26: 17:30etan eta 20:00etan LHUIan INTOCABLE (2€)



Kinesiologia Holistikoari buruzko hitzaldia eta familia konstelazioen tailerra Satya Yoga Eskolan

Maiatzaren 18an, ostirala, Kinesiologia Holistikoari buruzko hitzaldia eskainiko du Justo Villarrrek Satya Yoga Eskolaren egoitzan, Karmen kaleko 3. zenbakian, 19:30etik aurrera. Sarrera doakoa izango da. Teknika honek osasunaren trataera in-

tegrala lantzen du pertsonaren alde fisiko, emozionala eta mentalari erreparatuz. Maiatzaren 20an, igandea, Familia Konstelazioen saioa burutuko dute Satya Yoga Eskolan arratsaldeko 16:30etik 19:30era. Kasu honetan toki mugatuak izan-

go dituzte eta matrikula 650 535 516 telefonoan edo eskolan bertan formalizatu beharko da aurretik. Informazio gehiago www.satayayoga.es web gunean eta eskolaren facebook-eko horman ere eskura daiteke.